

Mugak

TXILLARDEGI



HEGOALDEKO

prentsa abertzaleak ez du aipatu ere egin, oso oker ez banago.

Baina occitanista errabiatuek herriro aldarrikatu dute egun hauetan Baiona Euskal Herri...

Kaskoia occitanieraren arduratsu ote den ez da batere garbi agertzen erromanisten artean.

Baiona Euskal Herria ez bada, arrazoin berberengatik aldarrikatu behar genuke Errioxa Euskal Herria dela...

Eta gauza bera Hegoaldek: Aierbe, Eskuain, Herramelluri, Ezkarai, Aiabarrena, Urrez, Mosquera-tarrei gaitzi bazake ere...

EAK ez du eskualde oso horietaz ezer esaten; baina 'B.A.B.' osoa atzeritizat hartzen duen talde politikoa...

Jakina: gaurko biztanleen nahia da azkeneko hitza. Euskal Herrian eta Erdal Herrietan. Normalean, eta alienazio-lana oso aurrera eramanez den lekuetan...

Alderrik da gure arazoa toponimi ikerketa bihurtu nahi izatea. Egia agertzea funtziozkoa da. Bai.

Baina helburua Euskal Herriak euskalduntzea eta askatu nahi izatea da.

Pistolaren begia

INIGO ARANBARRI



EUSKAL

Herrian gerrilari ez dagoela esan du lehen-dakariak Mexicon. Ni berarekin. Ez dabil oker. Kepa Urria...

ez da Emiliano Zapata. Txiplasek ez du bertsoilaria izanagatik Adelitarren letra asmatzen tupamoren bileretan.

Aberririk ez torturak. Eta edozertarako prest dagoen euskal lehengaia polizia ere bada. Nonbaitetik hasi behar da. Hariak beti du nondik tiratu.

Correo Españolak argitaratu duelako torturatu dute Kepa Urria. Ametsa zukeen elektrodoena Bizkaiko eta Euskal Herriko irakurle gehienek horrela erabakita.

Torturatu egin zintuztela diozu, Itziar. Laztan barik eskuztatu zaituztela, umilatzeoko biluztu. Pistolaren begia sartu dizutela.

Torturatu egin zintuztela diozu, Itziar. Laztan barik eskuztatu zaituztela, umilatzeoko biluztu. Pistolaren begia sartu dizutela.



«Ez ukitu ezer...» TULIN / DEIA

DEIA

Euskaltzain: idazlea ala hizkuntzalaria?

Egokia izateko ez da aski idazle ona eta euskara asko jakitea. Munduko dohainik hoberenak izanik ere, lehenik, hautagai izan behar da.

Dena den, nik neuk ez diot Euskaltzaindiari nahi duena aukeratu...

zkeo eskubiderik ukatuko. Azken urteotan aukeratu dituenak ere norbait badira, noski, jakinduriar ez merezimenduz. Nik behintzat ez ditut Txillardegik baino gutxiagotzat.

M. ATXAGA

EL SOL

Garaipen kezkarria

Frantziako hauteskundeetan Fronte Nazionalak erabateko garaipena lortzeko, berriro ere Frantziako mapa politikoa erorkizun kezkarria irauz gogoeta egin

eraztera behartu gaitu. Jean Marie Le Pen buruzagik ultraeskuindarrak zuzentzen edo hobeto esan agintzen duen alderdiak Nizako hauteskunde kantondarretako bozketa partzialetan botoen % 38 lortu izanak, justifikatutako alarmak sortarazi ditu.

Xenofobiaren eta Frantzia inperialaren bandera erakusten duen Le Penen bezalako mugimendua, joko demokratiko liberean babesean Nizako lehen indar politikoa bihurtzeko argi eta garbi erakusten du Frantziar gertatzeaz dagoena.

ZUZENDARIARI

Zumalabe jaunaren aurrean

Hementxe gaude, Artzai Onaren eliza borobilduan, kromlext honetan. Euskal Herri osoko jendea bildurik. Euskal Herria, bere seme kuttunari agur ematera etortria.

Hemen gaude elkarrekin senideak, lagunak, ezagunak... agintariak ere. Batzar honetan hierarkian jarrita gaude.

Gure aurrean dugu Euskara, bere Herria eta bere nortasuna maite izan duen gizaki unibertuala. Gure aurrean dugu, bidea erakutsiz eta seinaltuz. Gizon honek bere aurrekoengandik hartu zuen Euskara, bere bamean nahiez eta arrazioiez kargatu, eta ekintzez eman. Zumalabe jauna da etsipen guztien aurkako osagaia. Euskararekiko eta bizi nahi izatearen atxekimendua botere desegile guztiak baino indartsuagoa dela frogatu bai digu. Gure agurra Zumalabe Jaunari.

Bere ondoan senideak. Berari eta amoña Axenxiri esker, euskaldun finex osaturiko familia. Nere ezagun-lagunak aipatuko ditut: Koro, Joxemi, Patxi, Maddalen. Izan ere, zer balio du aldarrikatzeak, aldarrikapen horrek ez badio bame bame-

ko izaera eta ahaleginari erantzuten? Gure agurra, familiaria.

Inguruan dugu Jose Miel euskaltzalearen eginahaltan, berarekin batera, lanean aritu direnak. Garai gogorretan elkartzearen eta laguntzaunaren esperientzia egin zutenok. Horiek erakutsi digute elkartzeko gaituena —Euskara— bereizten gaituena baino sakonagokoa dela. Euskarak ikastoletan, beste eskoletan, komunikabideetan, administrazioan, liburuetan... pultsoz irabazi duen lekua ikustea da guzti horien poza. Horien poza eta gure abiapuntua. Gure agurra. Donostiako aiton-amon euskaltzaleei. Ondoa? Nola ez gara poztuko jende gasteagoa ondoan ikusiz? Argia eskuetan hartu eta, jadanik, txoko guztiara zabaltzeko prest daude besoak. Aurrekoek prestatu, guk landu, geroak osatu. Lehengo urteko urtarrilean, behin eta orduan bakarrik, ordu erdi bat egon nintzen Zumalabe Jaunarekin hitz egiten. Koro, bere alaba, eta biok joan ginen berari aurkeztera buruan genuen Donostiako euskaltzaleen elkarte, orain Bagera —Donostia Euskalduna— izenez jao berria. Honako hau esan zigun: ederra da zuen asmoa; zaila izango da; asmo hori aurrera doala ikustea izango da nere urte

hauetan poztasun handienetako bat. Ekingo diogu. Agintariak, hor ere, daude. Harrituta.

JOSEBA BARRIOLA Donostia

Escola Publiko bakarra

Azkeneko egunotan Eskola Publiko eta Ikastolaz egunkarietan azalduko artikulua desberdineki buruz. Hernaniko Gay Mur Ikastetxe publikoko iraskaleok zera adierazi nahi genuke: —Etxezarretak idatzitako artikulua hori iraingarri, arrazista eta demagogoa dertzitogula.

— Luis Daniel Izipzuak esandakoarekin bat gatozela. — Penagarri eta beldurgarri dela administrazioa alde batetik eta ikastolen elkarteak bestetik eskola publikoko eta ikastoletao irakasleak enfrentatzeko asmatan azaltzen duten jarrera. — Azkenik azpimarratu Euskal Eskola Publiko eta bakarren proiektua tinko dirauela eta ba dela, bai eskola publikoan bai ikastolan, hori aurrera eramateko prest dagoen jendea.

GAI-MUR IKASTETXE PUBLIKOKO IRAKASLEGOA Hernani (Gipuzkoa)

GAIA JARRITA



Ardanza Mexican

Ez ditu ziur bisitatuko hanga errefuxiatuak baina Mexicon egin nahi ditu Jose Antonek merituk gauza ederrak kanta nahi ditu Jaurilaritzako kukuak nahiz ta goraldu demokrazia ta ezkutuko paktuak ezetz aipatu Guggenheim eta Ertzaintzaren proiektuak.

ZIGOR ENBEITA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JUAN MARI TORREALDAI Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE Gerentea: INMA GOMILA

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI LUZIAN ETXEZAHARRETA INAKI URRIA Publikatzailea: KORNELIO ROTETA



HELBIDEAK Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioiak / 20.160 Lasarte-Oria / 37 15 45 / Faxa: 36 54 93 Egoitza soziala, Publikatzailea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / 46 90 22 / Faxa: 45 59 57 Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / Telef: 23 38 72 / Faxa: 23 38 73 Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / Telef: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77 Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.ezk. / 48002 Bilbo / Telef: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60 Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2. Galuperia kaia. / 64100 Baiona / Telef: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11